

UEUren COVID-19 PREBENTZIO-NEURRIAK

Orokorrean, Eusko Jaurlaritzak ikastetxeetarako emandako segurtasun- eta higie-neurriei jarraituko zaie.

- **Egoitzetarako sarrera eta irteerak:**
 - Orduategian markatuko dira, pertsona-mugimenduak mailakatuak izateko.
 - Egoitzak aukera hori ematen duenean, sarrerako eta irteerako ate independenteak erabiliko dira.
- **Egoitza barruan, maskara ezinbestekoa** izango da, 2 metroko distantzia bermatzen ez den kasu guztietan.
- **Ikasgelak:** aforoa eta edukiera maximoak zehaztu dira, partaideen arteko 2 metroko distantzia bermatzeko.
- **Espazio komunetan** (pasilloak, eskailerak, komunak...) erabilera mailakatu sustatuko da.
- **Eskaileraren** erabilera lehenetsiko da, igogailua salbuespenetan bakarrik erabiliko da.
- Pertsonen **zirkulazio-noranzkoak zehaztu eta seinaleztatu** egingo dira, segurtasun-distantziak mantenduta.
 - Beharrezkoa den kasuetan oztopo fisikoak jarriko dira. Betiere, larrialdi kasuetarako ebakuazio-ibilbideak errespetatuta.
- **Jende-pilaketak saihestuko dira.**
- Idazkaritza eta harrera-guneetan segurtasun-distantzia mugatuko da.
- **Higiene eta garbitasuna** bermatuko da:
 - Ikasgelak: jarduerak hasi aurretik eta ondoren desinfektatuko dira.
 - Komunak: egunean 4 aldiz desinfektatuko dira.
 - Espazio komunak egunaren hasieran eta amaieran desinfektatuko dira.
 - Gel desinfektantea egongo da egoitzen sarrera/irteera eta ikasgela bakoitzean.
 - UEUk maskarak jarriko ditu partaideen eskura.
- Hondakinen kudeaketa arduratsua egingo da.
- UEUren jardura UEUk kudeatzen ez duen egoitza baten ematen bada, bertako segurtasun- eta higie-neurriei jarraituko zaie, betiere UEUren irizpideei jarraituta.

Denon osasuna zaintzea guztion eginkizuna da, izan gaitezen arduratsuak
#ElkarEkin

Jarraibide hauek larrialdi-egoeraren fase eta momentuko irizpide eta arauen arabera moldatzen eta egokitzen joango gara.

Eibarren, 2020ko maiatzaren 25ean